Jakin gabe Interneten egunero egiten ditugun delituak

Julen Linazasoro
Heziketa Digitala
www.macsonrisas.es

Gutako gehienok erabiltzen dugu Internet egunero, eta jada gure bizitzaren parte bihurtu da. Guztiok erabiltzen dugu erosketak egiteko, lanerako, informazioa bilatzeko, sare sozialetan ibiltzeko, musika entzuteko, pelikulak ikusteko, eta abar. Bizitzako gainerako arloetan bezala, Interneten legeak zehazten du zer egin daitekeen eta zer ez, eta legea bete ezean, zigorrak jaso ditzakegu.

Arazoa da jende askok ez dakiela Interneten ere legea bete behar dela, eta oraindik larriagoa dena: jende askok ez daki Interneten zein jokabide eta ekintza diren legalak eta zeintzuk legez kanpokoak.

Internet erabiltzean egiten ditugun delituetako batzuk oso argiak dira. Nabariak dira, besteak beste, iruzur eta faltsifikazio informatikoak, sistemetan legez kontra sartzea, edo sistemetan eta datuetan gertatzen diren interferentziak. Modu sinple batean esanda, delitu horiek honako hauek izan daitezke: datuak lapurtzeko edo erabiltzaileak espiatzeko gailuak birusekin infektatzea, edo sistema baten dauden datuak baimenik gabe aldatzea, norbaiten sisteman sartzea edo norbait engainatzea kreditu txartelaren zenbakia lortzeko, eta abar.

Badakigu halakoak eginez gero legearekin arazoak izan ditzakegula. Baina, horiez gain, badira delitu direnik ez dakigun beste jokaera batzuk, edo delitu direla jakin arren, justifikatu egiten ditugunak garrantzirik eman gabe. Adibidez, jabetza intelektualaren kontrako delituak egiten ditugu askotan, ordaindu behar diren programak dohainik jaisten ditugunean. Oso zabalduta dago Microsoft Office (Word, Excel, PowerPoint…) ordaindu gabe erabiltzea, edo Photoshop programa eta Adobe enpresaren beste programa batzuk ere dohainik erabiltzea. Orain dela urte batzuk garestiak ziren programa profesional horiek eta gizarteak erabaki zuen ondo zegoela ordaindu gabe jaistea, eta horretarako tranpak asmatu ziren. Hori delitua da, batez ere enpresek edo langile autonomoek egiten badute. 2015eko uztailean atera zen legearen arabera, kartzela zigorra izan dezakete delitu hori egiten duten enpresen ordezkari legalek, administratzaileek edo autonomoek. Gaur egun, ordaindu nahi ez badugu, badaude funtzio horiek betetzen dituzten dohaineko bestelako programa batzuk: Open office (Microsoft-Officeen funtzioak egiten ditu) edo Gimp (Photoshop-en funtzioa betetzen du), esate baterako.

Sare sozialetan egiten ditugun delituak

Espainiako publizitate legearen arabera, delitua da sare sozialetan publizitatea egitea baldin eta ez badugu zehazten publizitatea dela. Jarraitzaile asko dituztenek (hamar mila baino gehiago), askotan, haien influentzia erabiltzen dute sortzen dituzten edukiak saltzeko, baina lege horren arabera, 30.000 euroko isuna izan dezakete halako jarrerek.

Sare sozialak egunero eta asko erabiltzen ditugu, eta sare sozialen bidez besteekin komunikatzen gara, iritziak elkarbanatzen ditugu, argazkiak igotzen ditugu, informazioa banatzen dugu; eta, zoritxarrez, liskarrak ugari izaten dira. Jende askok irainak, kalumniak eta mehatxuak erabiltzen ditu politikariekin, futbol

jokalariekin, pertsonaia publikoekin edo lagunekin haserretzen denean. Horiek guztiak delituak dira, bai bizitza fisikoan baita Interneten ere, baina askok uste dute Interneten ez dagoela legerik, nahi dutena egin edo esan dezaketela, eta, sarri, hilketa mehatxuak ere gertatzen dira. Sare sozialetan horrelako jokaerak oso zabalduta daudela kontutan izanik, komeni da jakitea ziberjazarpena ere delitua dela. Ziberjazarpena ez dago tipifikatua zigor kodean, baina ziberjazarpena egiteko erabiltzen diren teknika edo jokaerak bai. Delituak dira jarraian aipatuko ditugun hauek:

- Beste batek igo duen argazkia edo esan duena komentatzea pertsona hori iraintzeko edo umiliatzeko.
- Beste bati idaztea, berdin dio zenbat urte dituen, jipoituko duzula edo inork ez duela maite esanez gaizki senti dadin.
- Interneten inkesta bat sortzea norbaiten inguruan beste batzuek pertsona horri buruz gauza itsusiak esan ditzaten.
- Norbaiten inguruan gezurrak idaztea.
- Beste baten pasahitza erabiltzea, eta baimenik gabe bere kontu batean sartzea.

Zoritxarrez jarrera eta ekintza horiek oso zabalduta daude gazte eta ez hain gazte direnen artean. Aipatu behar da horrelako ekintzak gazteek egiten dituztenean gurasoak direla haien jokaeren arduradun, eta norbaitek salatzen baditu, gurasoek ordaindu beharko dutela isuna. Delitua oso larria bada, gazteek legeak ezartzen dituen beste zigor batzuk jasan beharko dituzte: adin txikikoen zentroan sartu, komunitatearen aldeko lanak egin…

Sare sozialen etorrerarekin, kuxkuxero eta jazarleek askoz errazago dute besteen bizitzetan sartzea. Jende askok sortzen ditu perfil faltsuak, beste norbait direla esaten dute besteen informazioa modu desberdinetan jasotzeko. Perfil faltsuak sortzea ez da delitua; bai, ordea, beste baten argazkia jartzea guk erabiltzen dugun perfil faltsu horretan. Identitatea faltsutzearen delitua oso zabalduta dago, eta isun bidez zein bestelako zigor bidez gaztigatzen da.

Sare sozialetan egiten ditugun txantxekin ere kontuz ibili behar dugu. Ezin dugu umorea erabili legeari ihes egin eta besteen kontra egiteko. Delitua da baten bati gauza itsusiak edo beldurgarriak bidaltzea, nahiz eta bromatan ari zarela esan. Gure kulturan oso zabalduta eta onartuta dago umorearen bitartez besteak zirikatzea, eta gazteek zabalduta eta onartuta dagoen guztia egiten dute.

Sare sozialetan, egunero egiten ditugu besteen intimitatearen kontrako delituak konturatu gabe bada ere. Esate baterako, ezin da inoren argazkia sare sozialetara igo haren baimenik gabe. Taldeko argazkiak ateratzen ditugunean, ia beti, inori baimenik eskatu gabe igotzen ditugu Facebook edo Instagram-era, eta hori ez dago ondo; aldez aurretik baimena eskatu beharko genuke. Baten batek ez badu baimenik ematen, ezin dugu igo. WhatsApp ere sare soziala da, eta ezin diogu inori beste baten argazkirik bidali haren baimenik ez badugu.

Argazkietan adin txikikoak agertzen badira, delitua larriagoa da. Eta adin txikikoak biluzik agertzen badira, oraindik ere larriagoa, haur pornografia delitua baita. Berdin dio argazkian 17 urteko gazte bat ateratzen den, 3 hilabeteko haur txiki bat etxeko bainuan edo 3 urteko haur bat hondartzan biluzik. 18 urte baino gutxiago baditu, eta biluzik badago, haur pornografia delitu baten aurrean egongo gara. Gainera, delitua ez da bakarrik argazkia bidaltzea, argazkia edukitzea ere delitua izango da. Beraz, norbaitek horrelako argazki bat bidaltzen badigu (berdin dio gu ere nerabeak edo haurrak garen), berehala ezabatu behar dugu.

Helduek beren argazki sexualak bidaltzea ez da delitua, bai ordea beste batzuenak bidaltzea. Arlo honetan asko gertatzen den delitua sexu estortsioa da. Sexu estortsioa da ezezagun bati gure argazki edo bideo sexualak bidaltzen dizkiogunean, pertsona horrek gu mehatxatzea esanez argazki hori gure ezagun eta familiakoen artean zabalduko duela diru kantitate bat ordaintzen ez badiogu, edo gazteei eta emakumeei material pornografiko gehiago bidaltzeko xantaia egitea.

Gure eguneroko jarrerek gazte eta haurrengan duten eragina zein den ikusi behar dugu. Guk beti haurrei argazkiak ateratzen badizkiegu baimenik eskatu gabe, eta amonari, osabari, eta abarri bidaltzen badizkiegu, haurrek modu naturalean ikusiko dute besteei baimenik eskatu gabe aritzea eta besteen intimitatea ez errespetatzea, eta ez dute aldea zein den ezagutuko. Ez dute irudien pribatutasuna zer den ikasiko, eta ez dute jakingo nola bermatu.

Elkarren artean komunikatzeko asko erabiltzen dugu WhatsAppa, eta uste baino gehiagotan delituak egiten ditugu tresna horrekin ere. Norbaitek mezu pribatu batean esan diguna hirugarren bati birbidaltzen badiogu, delitua izango da bidali digunaren baimenik ez badaukagu. Ezin dugu inor Whatsappeko talde batean sartu haren baimenik ez badaukagu, beraren telefono zenbakia eta argazkia taldeko beste partaideekin banatzen ariko garelako, eta hori ere intimitatearen aurkako delitua delako. Horrez gain, jazarpena egiten ariko gara norbaitek esaten badigu ez dituela gure mezuak jaso nahi, eta guk behin eta berriro idazten badiogu.

Tresna guztiak ondo erabiltzen ikasi behar dugu, eta gazteei ondo erabiltzen irakatsi behar diegu. Hori zaintzen ez badugu, heldutasunean arazoak izango dituzte, txikitatik uste izan dutelako egokiak direla egokiak ez diren hainbat jarrera. ■